



# FUNTSEZKO FUNTSEZKO JARDUERAK JARDUERAK

Hasteko, gure proiektua aurrera eramateko, lehenengo aplikazioa egin behar dugu. Aplikazioa ireki bezain laster, erabiltzaileak arazo batean egonez gero sakatu ahal duen botoi bat egongo da berehala poliziari deituko diona eta geolokalizazioa aktibatuko duena. Gainera, mugikorrek zarata handia egingo du urrun entzun dadin.

Aplikazioaren beste aldean, beldurra sentitzean deitu daitekeen kontaktuak egongo dira. Kontaktuen informazio guztia administrariok edukiko dugu eta arazo bat egotekotan kontaktua salatzeke aukera egongo da ere. Arazo bat gertatzen eta alerta botoia sakatzean, zuzenean aplikazioak duen kamara aktibatuko da, salaketa bat egotekotan probak izateko.

Gure bulegoan, bezeroentzako arreta telefono bat egongo da, zalantzak edo arazoak guri helarazteko. Horretaz aparte, instagram kontuaren bitartez bezeroen zalantzak argituko genituzke baita ere.

Aplikazioa egin ondoren, nola izango dugu bezeroen arreta? Lehenik eta behin, elkarte feministekin egindako harremanak ikusgarritasuna eta publizitate ona emango digu.

Aplikazioa behin sortuta eta izango dituen funtzioak ondo zehaztuta, bezeroekin izango dugun harremana zehaztea da hurrengo pausua. Gure proiekturako, gauzarik funtsezkoena aplikazioa sortzeaz aparte, bezeroekin harremana lantzea eta harreman estua mantentzea dela uste dugu; hau da, gure bezeroek ondo eta seguru sentiaraztea da gure helburua. Horretarako, hilabete behin aplikazioan, tabu diren gaiak buruz elkarrizketa bat izango dute. Horretaz aparte, instagramen bidez zalantzak argituko ditugu eta beraiekin elkarrizketak izango ditugu konfiantza lantzeko.

